



# LOTERIA 2020

Bazkideen Batzar Orokor ezberdinetan hitz egindakoa ardatz hartuta, Ikastola osatzen dugunon ardura ikastolarentzako baliabideak topatzea da; hortaz, eta ideia hori abiapuntu moduan harturik, Loteria salmenta Ikastolara diru iturrietako bat bilakatu da.

Aurten **83.482** zenbakia jokatuko dugu eta Ikastola osatzen dugun familia orori loteria-tako bana egokituko zaigu. Hortaz, berau saltzeko **SAIAKERA** egitea **ESKATZEN** dizuegu Artezkaritza Batzordetik.

## JASOTZEA

Loteria-takoa jasotzea derrigorrezkoa izango da guraso guztien partetik. COVID-19aren ondorioz eta Ikastolan pertsonen pilaketak ekiditeko, takoen banaketa idazkaritzatik kanpo bideratuko da, Ikastolako txokoan (lehen atezainaren etxean) eta Haur Hezkuntzako jolas-tokian ondorengo egun eta ordutegietan:

### **Ikastolako txokoan:**

Urriaren 26an, astelehena:  
16:00etatik 17:00etara  
Urriaren 27an, asteartea:  
16:00etatik 17:00etara  
Urriaren 28an, asteazkena:  
14:30etik 15:30era  
Urriaren 29an, osteguna:  
15:00etatik 17:00etara

### **Haur Hezkuntzan:**

Urriaren 30ean, ostirala:  
16:00etatik 17:00etara

Takoa familiako gurasoa ez den beste norbaitek jasotzekotan, **baimen idatzia** eraman beharko du eta ikasleak ez direnek bere identitatea NAN bidez egiaztatu.

## KOBRANTZA

Loteriaren kobrantza **azaroaren 15ean** jaulkiko den erreziboan azalduko da. Soberan geratutako loteria-takoak data horretatik aurrera idazkaritzan salgai izango ditugu.

Tako bakoitzak 5 papeleta izango ditu. Papeletaren prezioa 5€takoa izango da, 4€ loterian jokatuko direlarik, eta gainontzeko 1€a Ikastola laguntzeko izango da. Beraz, tako osoaren balioa 25€takoa izango da.

## TAKO OSAGARRIAK

Edozein familia egokitu zaion loteria-takoa baino gehiago sal dezake, nahi beste loteria-tako eskatzea ere posible da, Ikastolari guztiz lagungarria baitzaio. Horretarako, Ikastolaren web orrialdean aurkituko duzuen inprimakia bete **azaroaren 11** baino lehen.



## PARTE HARTUKO EZ DUTEN FAMILIAK

Ekimen honetan parte hartu nahi ez duen familia loteria-takoa itzultzeko aukera izango du.

Itzulketa banaketa mahaian adierazi beharko dute. Loteria epe barruan itzultzen duten familiei **EZ** zaie **EZER KOBRATUKO**, baina ezinbestekoa da itzulketa presentzialki edo idatziz gauzatzea.

Bestalde, jakin badakigu, hainbat familiek ez dutela loterian jokatzeko gustuko, baina gustura lagunduko lioketela Ikastolari; hau kontuan izanik, aukera dago loteria ez saltzeko eta loteria bidez jasoko dugun laguntzaren ekarpena bakarrik egiteko. Horrela nahi izatekotan, idatziz adieraz ezazue takoa banaketa mahaian itzultzerakoan.

Ekimen honen helburu bakarra Ikastolarentzako baliabideak lortzea da. Loteria sistemaren bidez egitea, bigarren maila baten geratu beharko litzateke. Horregatik, Ikastola osatzen dugun familia guztiei beste esfortzu bat eskatzen dizuegu. Bide batez, norbaitek diru iturri hauek areagotuko dituen edozein ekimen planteatuz gero, Ikastolatik berauek bultzatuko ditugula ziurta-tzen dizuegu. Mila esker alde aurretik!



Motxotekale, 16  
01400 Laudio  
Tel. 94 672 67 37  
audio@ikastola.eus  
www.laudioikastola.eus

## LAUDIO IKASTOLAKO LOTERIA HARTZEKO BAIMENA

**FAMILIA:** \_\_\_\_\_

**Baimena ematen diot \_\_\_\_\_ri  
gure izenean Laudio Ikastolako loteria jasotzeko.**

\_\_\_\_\_k izenpetua